



ALDEZ AURREKO KONTSULTA. GAIA: PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA ALDATZEN DUEN MARTXOAREN 27KO 10/2019 FORU ARAUAREN ONDORIOAK ZEHAZTEN DITUEN FORU ARAUAREN AURREPROIEKTUA.

Xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onesten dituen maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuaz, goiburuan aipatutako aurreproiektua prestatu baino lehen kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan, iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak
- b) Onetsi nahi den arauaren beharra eta egokitasuna
- c) Arauaren helburuak
- d) egon daitezkeen bestelako aukerak (arautzaileak eta arautzaileak ez direnak)

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga aldatzen duen martxoaren 27ko 10/2019 Foru Arauaren ondorioei buruzko arau esparrua ezarri behar duen etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkariak duten erakundeei beren iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, abuztuaren 6ra arte, aurrezkontsultak@araba.eus helbide elektronikoko postontziaren bidez.

AURREKARIAK	Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga aldatzen duen martxoaren 27ko 10/2019 Foru Arauak idazkera berria ematen zion, zerga horren ondorioetarako, Gizarte Segurantzaren lege orokorrean jasotako zenbait amatasun eta aitatasun prestazioren salbuespenari.
--------------------	--



KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK	<p>Kontua da zehaztea zeintzuk diren martxoaren 27ko 10/2019 Foru Arau horrek sartutako aldaketaren ondorioak.</p> <p>Hain zuzen, zehaztea zeintzuk diren Gizarte Segurantzaren lege orokorrean jasotako zenbait amatasun eta aitatasun prestazioren salbuespenaren ondorioak Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan.</p>
ONETSI NAHI DEN ARAUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA	<p>Beharrezko dela jotzen da, Zerga Koordinaziorako Organoaren kasuan kasuko akordioaren esparruan, finkatzea zeintzuk diren aipatutako salbuespenaren ondorioak.</p>
HELBURUAK	<p>Kontua da finkatzea zein den Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga aldatzen duen martxoaren 27ko 10/2019 Foru Arauaren ondorioen irismena.</p>
EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERAK (ARAUTZAILEAK ETA ARAUTZAILEAK EZ DIRENAK)	<p>Aukerarik egokiena dela uste da.</p>